

EUDELEK Udal Legearen oinarriak adostu ditu

- **Eudelen Batzorde Agintariak, gaur bilduta, luze barik Lehendakariari bidaliko dizkion oinarriak onartu ditu**
- **Eudelek uste du Udal Legea Lurralde Historikoen Legearen maila bereko lege instituzionala izan behar dela**
- **Etorkizuneko Legearen ekarpen nagusien artean, Herri Politiken Euskal Kontseilua sortzeko proposamena eta Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan Eudelek presentzia eta botoa izateko proposamena nabarmentzen dira**
- **Eudelek Jaurlaritzara bidaliko du; izan ere, berak proposatu behar du Lege-testua. Lege-testu hori adostutakoa izan beharko litzateke eta gehiengo zabal batek onartutakoa.**
- **Udal Legea beharrizan bat da, izan ere, Euskadiko egitura instituzionala osatzen lagunduko du**

Bilbon, 2010eko martxoaren 11n. Euskadiko Udalen Elkarteak, EUDELEK, etorkizuneko Udal Legeak izan behako lituzkeen oinarriak adostu ditu. Ideia oinarri-agiri hau Jaurlaritzari entregatzea da hurrengo egunetan, hark duelako botere legegilea. EUDELEntzat Udal Legea egin behar da eta Euskadiko mapa instituzionala itxi behar da, udalak sartuz herrialdeko hirugarren ardatz gisa, bideragarritasun instituzionala emanaz.



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Udal Legea, EUEDELen iritziz, “lege instituzionalaren” izaera eman behar zaio, betiere, ondorengo Lege batek lege hori erreformatuz gero eta Udal Legearen xedapenak indargabetu, aldatu edo ezabatu nahi izanez gero, Legea bera berariaz aldatuz egin behar izateko. Hau da: Udal Legeari Lurralde Historikoen Legeak bezalako legeek dituzten berme formal berberak ematea izango litzateke kontua.

Zentzu honetan, Udal Legeak Euskadiko udalen eskumenen erregulazio argi eta zehatza jaso behar du, eta eskumen horiek zerrenda bakar batean bildu behar direla. Horien artean, orain arte “inpropio” gisa hartutakoak (Tokiko Gobernuen titulartasunekoak izan gabe finantzatzen zirenak). Eskumenen definizioa funtsezkoa izango da udal finantziarioa zehaztu ahal izateko. Eta, horrela, Euskadiko udalek beren gain hartutako gastu ez derrigorrezkoa izenekoak saihesteko. Honi lotuta, erabateko adostasuna dago Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan presentzia eta boto eskubidea izateko beharrari buruz.

EUEDELek ezinbestekoa uste du Politika Publikoen Euskal Kontseilua sortzea. Bertan, Herrialdeko gobernuaren lurralde maila guztiak egongo dira presente, gobernu maila desberdinen arteko lankidetzeta eta kolaboraziorako mekanismoak koordinatu eta bultzatzeko, udal esparruari eragiten dioten arlo guztietan.

Azpimarratzekoa da baita, Udal autonomia babesteko, Udal Legean sartu beharreko printzipioei buruzko akordioa: udal autonomiaren printzipioa, nahikotasun ekonomikoa, autoantolakuntza instituzionala, hurbiltasuna, subsidiaritatea, proportzionaltasuna, elkartasuna eta iraunkortasuna, diferentziazioa, herritarren berdintasuna zerbitzu publikoak lortzeko orduan, udalen autonomia legegilea.



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Azkenik, EUDELetik herritarren parte-hartzea erraztuko duten mekanismoak indartzeko apustua. Gure ustez, udalak herritarrengandik hurbilen gauden gobernu maila gara, onartzen dugu legeak herritarren parte-hartzea sustatu behar duela udal bizitzako gaietan, besteak beste, tokiko aurrekontuen prestaketan, plangintza estrategikoan, hirigintza plangintzan eta abar. Horretan guztian, udalaren eskumenekoak diren gaiei buruzko herri-kontsultak ere egin beharko lirateke.

Hurrengo urratsak: erabateko adostasuna bultzatzea

- Eudelen jarrera ezarriko duen behin betiko testua prestatzea; logistika kontuak direla-eta, gaur arratsaldera arte ezin izan da idatzi.
- Oinarrien agiri hori Patxi López lehendakariari ematea datozen egunetan.
- Gainerako instituzioak: Aldundiei eta alderdi politikoei helaraziko zaie